

# **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure enpresak bezeroarekiko eskainiko duen laguntza, ez da pertsonala izango, hau da, bezero batek gurekin harremanetan jartzea nahi badu, soilik web gunean sartu eta enpresaren gmail-era mezu bat bidali edo telefono kontaktura dei egin beharko du.

Bestalde, produktuarekin arazoren bat izan badute, hau da produktua matxuratu edota pertsonalizazioarekin arazoak izanez gero, web-guneak laguntza botoi bat izango du, non bezeroak problema azalduz pare bat egunetan erantzuna jasoko du. Garantiaren barne baldin badago, beste karkasa bat bidaliko diogu, baina horrela ez bada, karkasa guri bidali eta prezio merkeago batean beste bat saltzen diogu. Horrela gure bezeroak mantenduz.

